

**KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK,
PARQUE TECNOLÓGICO - TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A.
SOZIETATEARENAK,
ARAUKETA HARMONIZATUARI LOTURIK EZ DAGOEN
KONTRATAZIORAKO**

A U R K I B I D E A

TOC1. XEDEA ETA ONESPENA

Jarraian datozen kontrataziorako barne-jarraibideek (hemendik aurrera, "**IIC**") Parque Tecnológico – Teknologi Elkartegia, S. A.-ri aplikatzen zaizkio (hemendik aurrera, "**Sozietatea**").

Sozietatea sektore publikoaren zati da azaroaren 14ko Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Erreal Dekretu Legearen 3.1.d) artikuluari jarraiki ("**SPKLTB**"). Halaber, Sozietateak esleipenak egiteko ahalmena du SPKLTBren 3.3.b) artikulua ezarritakoaren arabera.

KBJ hauen helburua Sozietatearen barne-prozedurak arautzea da arauketa harmonizatuari loturik ez dauden kontratuak esleitzeko, publizitate, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta bereizkeriarik eza printzipioen eraginkortasuna bermatu dadin, eta baita kontratua ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkezten duenari kontratua esleitu dakion ere, SPKLTBren 191. b) artikulua ezarritakoa betez.

Sozietatearen Administrazio Kontseiluak onetsi ditu KBJak, aholkularitza juridikoak txostena eman eta gero. Indarrean sartuko dira 2010eko abenduaren 17an eta data horretatik aurrera abiarazten diren kontratazio-espeditenteei aplikatuko zaizkie.

KBJ hauek indarrean sartzearekin batera, automatikoki indargabetuko da data horretara arte erabili den bestelako edozein kontratazio-prozedura.

2. KBJ-EN INTERPRETAZIOA

KBJ hauen ondorioetarako, letra larriz idazten diren terminoek termino horietarako SPKLTBn zehaztutako adiera izango dute.

Baldin eta KBJen ondorioz SPKLTBren manuren bat egokitu egin behar bada, edo guztiz edo zati batean aplikagarri ez bada, KBJ hauen arabera aplikagarriak diren SPKLTBren beste artikulua batzuek manu horretara egiten dituzten igorpenak egintzat hartuko dira egokitzapen edo indargabetze horien bidez.

SPKLTBren 88. artikuluan aurreikusten diren araei jarraiki kalkulatu da kontratuen balio zenbatetsia eta ez du Balio Erantsiaren Gaineko Zerga barne hartuko.

KBJ huen 9. eta 10. ataletan adierazitako zenbatekoak eta Sozietateak egindako kontratuak arauketa harmonizatuari loturik daudela adierazteko gutxieneko zenbatekoak eguneratuta daudela ulertuko da, hala dagokionean, Europako Batzordeak ezarritako zenbatekoei jarraiki eta SPKLTBren hamaikagarren xedapen gehigarrian adierazitako terminoetan.

3. KBJ-EI LOTURIK DAUDEN KONTRATUAK

KBJak Sozietateak egiten dituen kostubidezko kontratu guztiei aplikatuko zaizkie, beren izaera juridikoa edozein izanda ere. Salbuespen bakarrak ondokoak dira:

- a) SPKLTBren 4. artikuluan zerrendatutako negozioak eta harreman juridikoak.
- b) SPKLTBren 13. artikuluari eta horrekin bat datozeinei jarraituz, arauketa harmonizatuari loturik dauden kontratuak, beren esleipenerako SPKLTBren 190. artikuluan xedatutakoa betez.
- c) Sektoreko arautegi aplikagarriak araututako edo beraziaz salbuetsitako kontratuak eta negozioak, aipatu arautegiak ezarritakoari jarraiki esleituko direnak.

4. KBJ-EK ARAUTUTAKO KONTRATAZIOAREN PRINTZIPIO OROKORRAK

KBJ hauek aplikagarri zaizkien kontratuek SPKLTBren 1. artikulua jasotzen dituen printzipioak jarraituko dituzte eta, nolnahi ere, kontratu horiek esleitzerakoan publizitate, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta bereizkeriarik eza printzipioen mende egongo dira SPKLTBren 191. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Aurreko paragrafoan adierazten diren printzipioak betetzen direla bermatzeko, Sozietateak KBJei jarraituz izapidetzen dituen kontratazio-prozeduretan kontratazio-organoek, nolnahi ere, beti segurtatuko dute printzipio horiek betetzen direla.

Printzipio horiek beteta daudela iritziko da KBJen ondoko ataletan aurreikusten diren arauak betetzen direnean. Horiek aplikatzeko eta interpretatzeko, ondoko gidalerroak kontuan hartuko dira:

- a)** Publizitate printzipioa beteta dagoela iritziko da, lizitatzailerik potentzial guztien onuran, Sozietatearen kontratuei buruzko informazioa emateko hedabide egoki eta eskuragarriak aplikatzen direnean, betiere merkatua lehiari zabaltzeko gisan.
- b)** Gardentasun-printzipioa beteta dagoela iritziko da, dagokion kontratua esleitu aurretik informazio egokia zabaltzen denean lizitatzailerik potentzial guztiek lizitazioan parte hartzeko aukera izan dezaten. Era berean, printzipio honen bidez, parte-hartzaile guztiek aukera izan behar dute esleitu nahi den kontratuari aplikagarri zaizkion arauak aldeztu aurretik ezagutzeko eta segurtasun osoa izan behar dute arau horiek enpresa guztiei berdin aplikatzen zaizkiela.

- c) KBJ hauetan aurreikusitakoari jarraiki, behar diren neurriak hartuko dira lizitatzailerik potentzial guztiei sarbidea eta partaidetza errazteko eta onuragarriena den eskaintzari kontratua esleitzeko.
- d) Konfidentzialtasun-printzipioa betetzeko Sozietateak ez du zabalduko enpresariak emandako informazio konfidentziala, betiere informazioari izaera hori emateko arrazoiak daudenean eta, bereziki, isilpean mantenduko ditu sekretu teknikoak edo komertzialak eta eskaintzen inguruko alderdi konfidentzialak. Modu berean, printzipio hau aplikatuz, kontratistak behartuta daude kontratua betetzerakoan erabilgarri duten informazioaren konfidentzialtasuna errespetatzera, baldin eta pleguetan edo kontratuan informazio horri izaera konfidentziala ematen bazaio edo bere izaeraz konfidentzialki erabili beharrekoa bada.
- e) Berdintasun edo bereizkeriarik eza printzipioa bermatzeko prozeduren inpartzialtasuna eta ekitatea ziurtatzen duten beharrezko neurriak hartuko dira. Neurri horien artean, gutxienez, ondokoak egongo dira:
 - (i) Kontratuen xedea beti deskribatuko da inor ez bereizteko eran eta ez da aipatuko ez ekoizpen edo jatorri zehatzik, ez produktu berezirik, ez markarik, ez patenterik, ez motarik, ez jatorri edo ekoizpen jakinik, hala egiteko beharra egoki justifikatu "edo baliokidea" hitzak jarri ezean.
 - (ii) Ez da Europar Batasuneko beste Estatu kide batzuetako lizitatzailerik potentzialak zuzenean nahiz zeharka bereizten dituen inolako baldintzarik jarriko.
 - (iii) Hautagaiei tituluak, ziurtagiriak edo bestelako dokumentazio justifikatiboa aurkezteko eskatzen bazaie, Europar Batasuneko beste Estatu kideetako dokumentuak ontzat hartuko dira, titulu, ziurtagiri eta bestelako diplomak elkarrekiko baliokidetasun printzipioari jarraiki.
 - (iv) Interesa agertzeko edo eskaintzak aurkezteko jartzen diren epeak nahikoak izango dira, beste Estatu kide batzuetako enpresek astia izan dezaten norik bere ebaluazioa egoki egiteko eta eskaintza aurkezteko.

(v) Kontratu bateko esleipen-prozeduran hornitzaile bat baino gehiago lehiatzen bada, Sozietateak bermatuko du denek dutela kontratuari buruzko informazio berdina baldintza berdinetan.

5. KBJ-EK ARAUTUTAKO KONTRATUEN IZAERA ETA APLIKA DAKIEKEEN ARAUBIDE JURIDIKOA

Sozietateak egiten dituen kontratuak beti dute kontratu pribatuen izaera SPKLTBren 20.1. artikuluaurreikusitakoari jarraiki.

SPKLTBn xedatutakoari jarraiki, KBJen bidez araututako Sozietateren kontratuak beti egongo dira arauketa harmonizatuari loturik ez dauden kontratuak egiten dituzten sektore publikoko erakundeek derrigorrez bete beharreko xedapenen menpe. Bereziki, SPKLTBren 1. liburuan ("*Sektore publikoko kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen egiturazko elementuak*") jasota dauden arauetatik Sozietateari aplikagarri zaizkionak bete behar ditu, Administrazio Publikoa ez den sektore publikoko erakundea den aldetik.

6. KONTRATAZIO-ORGANOAK

Kontratazio-organoak kasuan-kasuan erabakiko dira, Estatutuetan aurreikusten denari eta Sozietateari aplikagarri zaizkion gainerako xedapenei jarraiki eta beste organo batzuei balio osoz eman dakizkiekeen eskuordetze edo ahalordetzeen kalterik gabe.

7. ENPRESARIAREN GAITASUNA ETA KAUDIMENA

7.1. Kontratatzeko gaitasuna

KBJ hauetan araututako kontratuak bakarrik gauzatu ahal izango dira sektore publikoko erakunde guztiei aplika dakizkiekeen SPKLTBren 54. artikuluan eta horiekin bat datozen manuetan zehazten diren baldintzak

betetzen dituzten pertsonekin. Hain zuzen ere, ezingo da kontraturik egin SPKLTBren 60.1 artikuluan agertzen diren kontratatzekeo debekuetako baten barruan aurkitzen den inorekin, ezta debeku horien azpian egondako enpresen jarraipena direla edota aldaketaz, fusioz edo ondorengotzaz horietatik eratorritakoak direla uste den enpresekin ere, dituzten zuzendariengatik edo beste zenbait arrazoirengatik hel daitekeelarik susmo hori.

Eskatzen diren gutxieneko gaitasun eta kaudimen baldintzek zerikusia izan behar dute kontratuaren xedearekin eta xede horren araberakoak izan behar dira.

7.2. Kontratatzekeo gaitasuna egiaztatzea

Sektore publikoko erakunde guztiei aplikagarri zaizkien SPKLTBren xedapenen kalterik gabe, kontratatzekeo kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzekeo, dagokion lizitazioan kontratu bakoitzaren inguruabarrak eta ezaugarriak aintzat hartuz zehazten den bidetik joko da; era berean, aplikagarria izango da SPKLTBren 75.etik 79.era bitarteko artikuluetan aurreikusten dena, kontratazio organoak hala egitea irizten badio.

Halaber, SPKLTBren 65.5. artikuluari jarraituz eta kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak aintzat hartuz, enpresariaren kaudimena dagokion sailkapenaren bidez ziurta dadila eskatu ahal izango da.

Enpresariak bete beharrekeo kaudimen-baldintza minimoak eta bere burua egiaztatzekeo ekarri beharkeo duen dokumentazioa lizitazio-iragarkian eta kontratuaren pleguan zehaztuta egongo dira, KBJei jarraiki plegua eskatu behar den kasuetan.

7.3. Homologatutako kontratisten zerrenda

Homologatutako kontratisten zerrenda izango du Sozietateak KBJ hauen 10.1. artikulua 1. eta 2. mailatan zehaztutako arauketa harmonizatuari loturik dagoen kontrataziorako.

Zerrenda hori eta nahi duten enpresa eta profesional guztiek, horretarako ezarritako gaitasun eta kaudimen baldintzak betetzen badituzte, bertan izena eman ahal izango dute inolako bereizkeriarik gabe.

Homologatutako kontratisten zerrenda sortu dela argitaratu beharko da Sozietatearen kontratatzailearen profilean eta bere funtzionamenduak honako printzipio hauek jarraituko ditu:

- a)** Zehaztutako baldintzak betetzen dituzten enpresari eta profesional guztiek aukera berdintasunean izena eman ahal izatea bermatuko da.
- b)** Sozietatearen kontratistak homologatutako kontratisten zerrendan egon beharko dira beren kontratuak indarrean dauden bitartean.
- c)** Homologatutako kontratisten zerrendari esker, Sozietatearen kontratazio-prozeduretan parte hartzen dituzten eta interesa azaltzen duten enpresari eta profesionallekiko harremanak gardenagoak izango dira, lizitazioetan parte hartzea erraztuko da eta beren eskaintzen egoeraren berri emango da.
- d)** Enpresa lizitatzailerik eta Administrazio Publikoetako edo sektore publikoko beste erakunde batzuetako kontratistek duten erregistro elektronikoen kalterik gabe funtzionatuko du Sozietateak duen homologatutako kontratisten zerrendak.
- e)** SPRI, S.A.-n zentralizatutako zerrenda bakarra egongo da SPRI Taldeko Azpiegituretako Zuzendariordetzaren mende dauden Sozietate guztientzat.

8. ESKA DAITEZKEEN BERMEAK

Kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak aintzat hartuz, kontratazio-organoak ahalmena izango du esleipendunari berme bat jar dezala eskatzeko prestazioa behar bezala gauzatzen duela bermatze aldera.

Berme horren zenbatekoa kontratuaren inguruabarren eta ezaugarrien arabera finkatuko da.

Eskatzen diren bermeak SPKLTBren 96. artikuluan aurreikusten den edozein modutan aurkeztu ahalko dira.

9. KONTRATUAK PRESTATZEA

SPKLTBren II. eranskinaren 17. eta 27. kategorien artean jasotzen diren eta 200.000 euroko edo gehiagoko zerbitzu-kontratuak prestatzeko, SPKLTBren 137.1. artikuluan eta harekin bat datozen xedapenetan adierazitakoa jarraituko da.

KBJek aipatzen dituzten gainontzeko kontratuetan plegu bat egin beharko da beren zenbatekoa 50.000 euro baino handiagoa denean. SPKLTBren 137.2. artikuluan eta dagozkion xedapenetan adierazitako edukia jasoko da aipatu pleguan eta, era berean, SPKLTBren 120. artikuluan xedatutakoa aplikagarri izango da.

Horrez gain, KBJekin bat datozen idatz-zatien arabera bidezkoa den informazioa ere jasoko da pleguan.

Hau da, SPKLTBren 137.2. artikuluen eta horrekin bat datozen KBJen idatz-zatiak kontuan harturik, pleguetan ondoko datuak jasoko dira derrigorrez, kontratazio-organoak beharrezkotzat dituen datu gehigarrien kalterik gabe:

- a)** Kontratuaren oinarritzko ezaugarriak.
- b)** Aldaerak onartzeko erregimena.
- c)** Eskaintzak jasotzeko erak.
- d)** Lizitazioan parte hartu nahi duten enpresariei eska dakizkiekeen gaitasun eta kaudimen baldintza minimoak.
- e)** Kontratazio-organoak hala irizten dionean, eskaintzak aurkezteko gonbita jasoko duten hautagaien kaudimen-irizpide objektiboak, eta baita eskaintza aurkezteko gonbita egingo zaien hautagaien gehieneko kopurua ere, hautagaiok inoiz izango baitira izan hiru baino gutxiago.
- f)** Kontratua esleituko zaion ekonomikoki onuragarriena den eskaintza zehazteko irizpide teknikoak eta ekonomikoak.
- g)** Kontratazio-organoaren iritziz beharrezkoa denean, ebaluazio-batzorde bat eratuko da aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzeko, eskaintzak baloratzeko eta esleipen-proposamena egiteko.
- h)** Hautatutako lizitatzailleek edo lizitatzailleak jarri beharreko bermeak, hala dagokionean.
- i)** SPKLTBren 120. artikuluari jarraiki lan-kontratuen subrogazio-baldintzei buruzko informazioa, hala dagokionean.
- j)** Enpresariari ezartzen zaion konfidentzialtasun-betebeharraren denborazko luzapen objektiboa, hala dagokionean.
- k)** Hala dagokionean, lizitatzailleek informazio gehigarria lortzeko aplikagarri diren epeak eta eskaintzak aurkezteko epeak edo, hala dagokionean, parte-hartze eskaerak aurkezteko epeak, bai eta aurkeztutako dokumentazioa zuzentzeko epeak ere, kontratazio-organoak hala egiteko eskatzen duen kasuetan.
- l)** Kontratua egiteko epea, hamar egun naturalez bestelako epe bat ezarri nahi den kasuetan.

10. KONTRATISTA HAUTATZEA ETA KONTRATUAK ESLEITZEA:

10.1. Kontratuen mailak

KBJ hauek aplikatzeko eta kontratu bakoitzari aplikatu beharreko prozedurak eta baldintzak ezartzeko, ondoko mailak bereizten dira (hemendik aurrera horietako bakoitza adierazteko **“Maila”** idatziko da eta multzo osoari deitzeko berriz, **“Mailak”**).

a) 1. maila

Ondoko kopuruetatik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak:

- 50.000 €, obra-kontratuak badira.
- 18.000 € gainontzeko kontratuetan.

b) 2. maila

Ondoko kopuruen arteko balio zenbatetsia duten kontratuak:

- 50.000 € eta 200.000 €, obra-kontratuak badira.
- 18.000 € eta 50.000 € gainontzeko kontratuetan.

c) 3. maila

Ondoko kopuruen arteko balio zenbatetsia duten kontratuak:

- 200.000 € eta 2.000.000 €, obra-kontratuak badira.
- 50.000 € eta 100.000 €, zerbitzu-kontratuak badira.

d) 4. maila

3. mailan zehaztutako balio zenbatetsia gainditzen duten eta arauketa harmonizatuari loturik ez dauden kontratuak, hau da, ondoko kopuruen arteko balio zenbatetsia duten kontratuak:

- 2.000.000 € eta 5.000.000 €, obra-kontratuak badira.
- 50.000 € eta 200.000 €, hornidura-kontratuak badira.
- 100.000 € eta 200.000 €, zerbitzu-kontratuak badira.
- SPKLTBren II. eranskinean adierazitako 17. eta 27. kategorien artean jasotako zerbitzu-kontratuak, 200.000 euro edo gehiagokoak.

10.2. Publizitatea

3. eta 4. mailetako kontratuen kasuan, beharrezkoa izango da lizitazioari buruzko informazioa txertatzea Sozietatearen kontratatzailearen profilean, bai eta Euskadin hedapen handiena duten bi egunkarietan ere. Hala ere, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak aintzat harturik bestelako hedabideak erabili ahal izango dira. Era berean, Aldizkari Ofizialez edo bestelakoez baliaitzeko aukera egongo da.

Halaber, Sozietatearen kontratatzailearen profilean ekitaldi bakoitzean edo urte anitzeko epe batean esleitu beharreko kontratuei buruzko iragarkien berri emango da.

Lizitazioaren iragarkian ondoko informazioa agertuko da:

- a)** Kontratuaren funtsezko xehetasunen deskribapen laburra.
- b)** Kontratua esleitzeko prozedura, eskaintzak (prozedura irekian) edo parte hartzeko eskaerak (prozedura mugatuan) aurkezteko epea adieraziz, bai eta enpresekin negoziatu beharreko alderdi ekonomikoak eta teknikoak ere (prozedura negoziatuan).
- c)** Kontratazio-organoak hala irizten badu, proposamenak eskaintzera gonbidatuak izango diren hautagaiak aukeratzeko erabiliko diren kaudimen-irizpide objektiboak, kasu horretan, parte-hartzeko eskaerak aurkezteko epea zehaztuz.
- d)** Sozietatearekin harremanetan jartzeko gonbita informazio gehigarria lortzeko helburuarekin.

Nolanahi ere, kontratuaren inguruabarrek eta ezaugarriek hala egitea gomendatzen badute, posible izango da iragarkiari edukia gehitzea edo kontratatzailearen profilean informazio gehigarria jartzea.

10.3. Esleipen-prozedurak

Prozedura irekia edo prozedura mugatua aplikatzen den kasuetan, aplikagarriak izango dira SPKLTBren 157.etik 168TB.era bitarteko artikuluetako aurreikuspenak, ondoko egokitzapenekin:

- a) Ezingo dira aplikatu lizitatzaileei informazioa emateko epeak, ezta eskaintzak edo parte-hartzeko eskaerak aurkezteko epeak ere. Horien ordeaz, iragarkian edo, hala dagokionean, pleguan zehazten diren epeak aplikatuko dira. Nolanahi ere, ezartzen diren epeak beti izango dira nahikoak edozein lizitatzailek, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako enpresek barne, denbora izan dezaten deialdia egoki aztertzeke eta eskaintza aurkezteke.
- b) Kontratazio-organoak ebaluazio-batzorde bat izendatuko du bere iritziz beharrezkoa denean eta hala adieraziko da pleguan. Aipatu batzordearen zeregina izango da aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzea, eskaintzak baloratzea eta kontratazio-organoari esleipen-proposamena bidaltzea. Ez da aplikagarria izango adituen batzordearen esku-hartzeari buruz SPKLTBren 150.2. artikuluan aurreikusitakoa.

Sozietateak kontratuak esleitzeko Maila bakoitzerako ezartzen diren ondoko bermeak beteko ditu gutxienez.

a) 1. mailako kontratuak: zuzeneko esleipena

6.000 euro baino gutxiagoko zenbatekoa duten 1. mailako kontratuak zuzenean esleituko dira, ez daude ondoren zehazten diren jarraibideen mende.

6.000 euroko edo gehiagoko 1. mailako kontratuak jarduteko gaitasuna duten enpresari eta profesionaleri eskatutako hiru eskaintzen artean onuragarrienari esleituko zaizkie.

Eskaintzak aurkezteko gonbita, ahal bada, homologatutako kontratisten zerrendatik abiatuta egingo da. Halaber, enpresa edo profesional orok zerrendan sartzeko eskaera egin ahalko du edozein unetan, deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituela frogatzen badu.

homologatutako kontratisten zerrenda etengabe eguneratuko da eskaintzak aurkezteko egiten diren gonbitekin, hala, ahal dela, txandakakoa izango da. Horrela, behin hiru enpresa edo profesionali eskaintza aurkezteko gonbita egiten zaienean, berriro beren txanda heldu arte ez zaie berriro gonbitik egingo.

Behin hiru eskaintza hauek jasota, onuragarrienari esleituko zaio kontratua.

Kontratatik ez badu lana ongi egiten, homologatutako kontratisten zerrendatik kendu ahalko da.

b) 2. mailako kontratuak: prozedura negoziatua

2. mailako kontratuak ekonomia eta teknikaren aldetik onuragarriena den eskaintzari esleituko zaizkie.

Horretarako, ahal bada, homologatutako kontratisten zerrendan izena emandako enpresari edo profesional guztiei eskaintza egiteko eskatuko zaie.

Behin eskaintzak jasota, ahal behar izanez gero, hiru eskaintzarik onuragarrienak aurkeztu dituzten lizitatzailleekin negoziatuko da eta horren ondoren, kontratua esleituko da.

Kontratistak ez badu agindutako lana ongi egiten, dela kalitatearen, dela prezioaren edo dela epearen aldetik, homologatutako kontratisten zerrendatik kendu ahalko da.

Ebaluazio-batzordeak kontratuko alderdiak negoziatu ahalko ditu gonbidatutako lizitatzailleekin eta negoziazioa bitartea lizitatzaille guztiek tratu bera jaso dezaten bermatuko du eta ez du modu bereizgarrian informaziorik emango.

c) 3. mailako kontratuak: prozedura mugatua

Esleipen-prozesua bi fasetan banatuko da:

1. fasea:

Plegu batean oinarritutako lehiaketarako deialdia egingo da. Pleguan beharrezko kaudimen tekniko eta ekonomikoa, bai eta esleipenaren irizpideak ezarriko dira.

Behin lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa jasota, kaudimena aztertuko da eta pleguak ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak kanporatuko dituzte, betiere konpon ezin daitezkeen edo horretarako emandako epean konpondu ez diren gabeziak badira.

Lizitatzaille guztiei emango zaie aurrekoaren emaitzaren berri.

2. fasea:

Aurreko fasea gainditu duten lizitatzaillei eskaintza aurkezteko gonbita egingo zaie.

Ebaluazio-batzordeak gainontzeko dokumentazioa aztertuko du eta eskaintzak ebaluatuko ditu pleguak ezarritako irizpideei jarraiki.

Ebaluazio-batzordeak esleipen-proposamen bat egingo du pleguan adierazitako esleipen-irizpideetan oinarrituta. Kontratazio-organoari jakinaraziko dio.

Esleipenaren emaitza banan-banan jakinaraziko zaie lizitatzaileei.

d) 4. mailako kontratuak: prozedura irekia

Esleipen-prozesua fase bakarrekoa izango da.

Plegu batean oinarritutako lehiaketarako deialdia egingo da. Pleguan beharrezko kaudimen tekniko eta ekonomikoa, bai eta esleipenaren irizpideak ezarriko dira.

Behin lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioa jasota, beren kaudimena aztertuko da eta pleguak ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak kanporatuko dituzte, betiere konpon ezin daitezkeen edo horretarako emandako epean konpondu ez diren gabeziak badira.

Lizitatzaile guztiei emango zaie aurrekoaren emaitzaren berri.

Ebaluazio-batzordeak gainontzeko dokumentazioa aztertuko du eta eskaintzak ebaluatuko ditu pleguak ezarritako irizpideei jarraiki.

Ebaluazio-batzordeak esleipen-proposamen bat egingo du pleguan adierazitako esleipen-irizpideetan oinarrituta. Kontratazio-organoari jakinaraziko dio.

Esleipenaren emaitza banan-banan jakinaraziko zaie lizitatzaileei.

10.4. Kontratista hautatzea

3. eta 4. mailetako kontratazioetarako, parte-hartzaileei jakinaraziko zaie zein kontratista hautatu den eta Sozietatearen kontratatzailearen profilean argitaratuko da, bai eta Euskadin hedapen handiena duten bi egunkarietan ere kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta, besterik erabaki ezean eta baldin eta konfidentzialtasun arrazoiak direla eta justifikatuta badago.

Esleipendunak ordainduko du prentsako iragarkien kostua.

10.5. Kontratuak formalizatzea

Hala dagokionean, dagoneko pleguan jasota egon ezean, KBJei loturiko kontratuak –Sozietateak egiten dituenak– ondorengo aipamenak jaso beharko dituzte, SPKLTBren 26. artikuluan xedatutako betez:

- (a)** Alderdien identifikazioa.
- (b)** Sinatzaileek kontratua sinatzeko duten gaitasunaren egiaztapena.
- (c)** Kontratuaren xedearen definizioa.
- (d)** Kontratuari aplikatu dakiogkeen legeria.
- (e)** Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrenda. Kontratuan hala adierazten bada, dokumentazio hori hierarkikoki antolatuta ager daiteke alderdiek adostutako lehentasun-hurrenkeran; hala eginez gero, eta akatsen bat egon dela adierazten ez bada, hitzartutako hurrenkera hori erabiliko da, dokumentuen artean kontraesanak daudenean, zein gailentzen den jakiteko.
- (f)** Egiazko prezioa edo prezioa zehazteko modua.
- (g)** Kontratuaren iraupena edo kontratua gauzatzen hasteko eta amaitzeko aurreikusitako datak, bai eta kontratuaren luzapenaren edo luzapenen datak ere, aurreikusita egonez gero.
- (h)** Prestazioak hartzeko, emateko edo onartzeko baldintzak.

- (i) Ordainketa-baldintzak.
- (j) Ebazpena bidezkotzat hartzen duten kasuak.
- (k) Kontratatari ezartzen zaion konfidentzialtasun-betebeharraren denborazko luzapen objektiboa, hala dagokionean.

Oro har, kontratua formalizatzeko epea, gehienez, hamar egun naturalekoa izango da kontratista hautatzen den egunetik hasita, betiere dagozkion pleguetan edo eskaintzetan bestelako eperik zehazten ez denean.

Kontratua formalduz adieraziko du Sozietateak kontratua onartu izana eta horrenbestez kontratua hobetutzat joko da.

11. ARRAZIONALIZAZIO TEKNIKOKO ARAUAK

Bere kontratuen esleipena arrazionalizatzeko eta antolatzeko, Sozietateak aukera izango du enkante elektronikoak egiteko, hitzarmen markoak sinatzeko, sistema dinamikoak artikulatzeko edo zerbitzuetan edo bestelako sozietate nahiz erakundetan obrak, zerbitzuak eta horniketak zentralizatzeko, SPKLTBren 148. artikuluan eta 194.etik 207.era bitarteko artikuluetan xedatutakoari jarraituz. Era berean, kasu guztietan aplikagarriak izango dira KBJ hauetatik eratorritako egokitzapenak.

12. JURISDIKZIO ESKUMENDUNA

Jurisdikzio zibila izango da KBJ hauek xedetzat dituzten kontratuen prestaketaren, esleipenaren, ondorioen eta iraungipenaren inguruan gerta daitezkeen auzi guztiak ebazteko jurisdikzioa.